

# Donostian, 2012ko maiatzaren 25ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,  
Aurelia Arkotxa, euskaltzainburuordea,  
Kintana, Xabier, idazkaria,  
Sagarna, Andoni, Iker sailburua,  
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,  
Arejita, Adolfo,  
Azkarate, Miren,  
Charritton, Pierre,  
Coyos, Jean-Baptiste,  
Goenaga, Patxi,  
Haritschelhar, Jean,  
Lakarra, Joseba,  
Larre, Emile,  
Oihartzabal, Beñat,  
Peillen, Txomin,  
Salaberri, Patxi,  
Salaburu, Pello,  
Sarasola Ibon,  
Toledo, Ana,  
Torrealdai, Joan Mari,  
Uribarren, Patxi,  
Zabaleta, Patxi eta  
Zalbide, Mikel

Erramun Osa, idazkariordea;  
Joseba Zabaleta, kudeatzailea;  
Pruden Gartzia (Azkue Biblioteka), eta  
Mikel Gorrotxategi (Onomastika zerbitzua) euskaltzain urgazleak; Jon Artza (Argitalpen banaketa zerbitzua), zegozkien gaietan.

## **Ezin etorriak eta ahalak:**

Jose Sagrario Alemanek ahala A. Iñigori; Jose Irazu "B. Atxaga"k ahala A. Urrutiari; Jose Luis Lizundiak ahala A. Arejitari; Xarles Videgainek ahala B. Oihartzabali.

Batzarra goizeko 10:00etan hasi da Donostian, Diputazioaren Jauregiko batzar areto nagusian, ezkerreko zutabeen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

**1. Agurra eta hasierako oharrak:** Euskaltzainburuak, bilduriko euskaltzainak agurtu ondoren, jasoriko ahalak jakinarazi ditu.

**1.1. Aurreko batzarraren akta (2012/04/27) onartzea.** Ez da oharrrik jaso eta, beraz, aurreko batzarraren bilera-agiria ontzat eman da.

## 2. Exonomastika

### 2.1. «Ipar Amerikako toponimia» araugaia onartzea

X. Kintanak Onomastika batzordearen «Ipar Amerikako toponimo batzuei buruzko oharrak. Eranskina» aurkeztu eta izen geografiko horien banan banako agerriera, lekukotasun eta historia bereziak erakutsi ditu. Kasu bakoitzean Ipar Amerikaren konkistan eta kolonizazioan Espainiak, Frantziak eta Ingalaterrak izandako partaidetasun eta eragina, euskal tradizio idatzia eta munduko beste hizkuntza nagusien jokabidea kontuan hartu izan dira. Ondoren, J. Haritschelharrek, I. Sarasolak, P. Charritonek, P. Goenagak eta A. Arejitak beren iritziak adierazi dituzte. M. Zalbidetik orain arteko tradizioa, hitzaren garrantzi estatistikoa, alderdi funtzionala eta balio informatiboa ere ebaluatu beharra azpimarratu du. X. Kintanak Exonomastika azpibatzeraren orain arteko jokabidea gogoratu du, eta antzeko kasuetan beti irizpide berbera erabiltzen saiatzen dela.

Ondorioz, eta formak onetsi eta erabaki dira. Era berean, Iparraldeko Amerikako toponimia araugaia ere bere horretan onartu da.

**3. Hiztegi Batua. 2. itzulia (aurreko Osoko bilkuraren jarraipena), azken atala, onartzea.** Helduriko oharrak A. Sagarnak aurkeztu ditu, bakoitzaren erantzun idatziarekin batera. Hasteko, aurreko Osoko bilkuran aztertu gabe geratu ziren Xabier Kintanaren ekarpenei buruzko oharrak, datuak eta proposamenak aurkeztu ditu. Horiek horrela, *miszelanea*, *munizipal*, *nahikotxo*, *neskenegun*, *ondo beharrean* eta *eslalon* edo *slalom*, *tenplatu*, *toletiko*, *transplante* eta *txilar* hitzak direla eta, Andoni Sagarnak aurkeztu dituen proposamenak hobetsi dira.

P. Uribarrenen oharrei dagokienez, *oliokoi* hitza definitzerakoan agertzen den *oliozale* falta dela eta, berorren sarrera gehitzea onartu da. Eransteke eskatu duen *lepatu* hitza, ordea, badago, eta beraz ez dago sartu beharrik. *Konkurrentzia* berban, ordea, *konkurrentzia* egin adibidea eranstea onartu da. *sapa/zapa* eta *sapaxto/zapaxto* bikoteei dagokienean, P. Uribarren, I. Sarasola, J. Lakarra eta A. Arejita mintzatu dira. Ondorioz, *sapa* eta *sapaxto* mantentzea eta beste biak kentzea erabaki da.

Era berean X. Videgainek *idorrean*, *inbertitu*, *kola*, *korro*, *kukulu*, *leotardo*, *listoi*, *garaño*, *ttorro*, *txestatu*, *xarma* eta *zetabatu* hitzez eginiko oharrak, txosten idatzi batean banan-banan aztertu eta argitu dira. Halere, *sordeis/sordies* bikotea dela eta, I. Sarasolak, P. Charritonek, J. Haritschelharrek, Tx. Peillenek, B. Oihartzabalek eta J. Lakarrak beren iritziak agertu dituzte. Horiek entzun eta horko yod berriak euskararen ohiko fonetikan sorrarazten dituen arazoak ikusita, az-

kenean *sorddes* forma hobestea erabaki da. Horrela *Hiztegi Batuaren* bigarren itzulia amaiturik gelditu da.

#### 4. Euskaltzaindiaren plan estrategikoaren garapena

**4.1. Aurreko Osoko bilkuran aurkezturiko zerbitzuetako plangintzen onarpena.** E. Osa idazkariordeak hitza hartu eta, joan den hilean *Informatika* eta *Pren-tsa-Komunikazio zerbitzuek* aurkeztu zituzten txostenei buruz ez dela oharririk etorri eta, beraz, biak onarturik gelditu dira. Hasiriko kontu-ematearen bidetik, beste hiru egitasmotako urteko planak aurkeztu dira, hots, Argitalpen, Argitalpen banaketa eta Azkue Biblioteka zerbitzuetakoak.

**4.2. Zerbitzuetako plangintzak aurkeztea.** Ricardo Badiola, Argitalpen arduraduna, bajaran dagoela eta, berak prestatutako plana, paperean idatzia, idazkariordeak banatu du euskaltzainen artean, nor bere etxean irakur dezan.

Jon Artzak, Argitalpenen banaketa zerbitzuaren buruak, Euskaltzaindiak argitarara eman eta kaleratu dituen azken liburuen berri eman du. Era berean, Sara, Maule, Bilbo eta Durango moduko liburu-azoketan izandako partaidetasuna aipatu du. Salmentak gehitu eta hobetzeko ahaleginak ere bai. P. Salaburu euskaltzainak liburu elektronikoak eskuratzeko posibilitatea zertan den galdetu du. J. Artzak arlo horretan egindako pausoak argitu ditu, eta orain arte emaitzak ez direla onak izan komentatu. Halere, bide horretan zori hobez jarduteko posibilitatea ere azaldu du. Era berean, liburu agortuak banan-banan argitaratzeko posibilitatea aztertzen ari da Zuzendaritza.

Pruden Gartziak, Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekaren zuzendariak, bere txostena aurkeztu eta hor zerbitzuetan egindako pauso nabarmenenak xehatu ditu: argitarara emandako materiala, artxiboan dauden material argitaratu gabeak, helduriko galderei egindako erantzunak eta, Lacomberen bibliotekako funtseko liburuen digitalizazioa, besteak beste.

Hiru kasuetan txostenei oharrak egiteko epea ekainaren 25 artekoa dela gogorarazi zaie euskaltzainei. Era berean, plangintzak euskaltzainei euskarri elektronikoa helarazteaz arduratuko da idazkariordea.

**4.3. Onomastika zerbitzuaren lanez egindako aurreikuspenaz.** P. Goenagak Onomastika zerbitzuak apirilean aurkezturiko aurreikuspenaz ohar idatziak ekarri ditu, izendegi berria prestatzean gogoan izan beharko liratekeen puntu batzuk eskainiz. Era berean, orain arteko irizpide eta bikoiztasun batzuekin bere desadosta-

sunak azaldu ditu. Eztabaidaren funtsa pertsona-izenetan genero banaketa egiteko modua izan da. P. Salaburu bera ere bat dator P. Goenagarekin.

Mikel Gorrotxategi Onomastika zerbitzuko arduradunak azaldu du P. Goenagak aipatu dituen prozedurak, hala nola, Erregistroetako kontsultak eta azken urteotan Euskal Herrian jaioberriei ezarririko izenen azterketa egiten dela eta horren lekuko direla argitaraturiko lanen bat edo beste. Irizpideei dagokienez, gogora ekarri ditu, batetik, euskarak izan duen tradizioa eta, bestetik, Euskaltzaindiak urteetan zehar eginiko bidea.

I. Sarasolak beste hizkuntzetan ere grafia bikoiztasuna gertatzen direla gogoratu du (*Ester/Esther, Elena /Helena*). P. Charriton J. M. Satrustegik bere egunean erabili zituen irizpide eta pertsona-izen batzuen aurka mintzatu da. B. Oihartzabalek galdetu du, Onomastika zerbitzuak Espainiako legeari erantzun behar badio, ea zeintzuk diren hor, Euskaltzaindiaren egitekoak?

P. Zabaletak pentsatzen du espainiar legeak pertsona-izenei nahitaezko sexu-be-reizketa agertzea eskatzean, Estatuko erromantzeetarako egokia izan arren, halere ez datorkiola ongi euskarari, genero gramatikalik ez duelako, eta horregatik agian legea aldatzea komeniko litzatekeela. Ildo horretan baina, X. Kintanak gogoratu du, euskararen antzera, genero gramatikalik ez duten beste hizkuntzetan ere, adibidez georgiera, turkiera edo japonieran, pertsona-izenetan ez dutela eskuarki izen berbera erabiltzen gizon eta emakumeentzat, erabat bereziak baizik.

Pertsonen sexua izenetan bereizteko kontu honetan, M. Gorrotxategik Espainiako legearen zorrotasuna aipatu du, eta izenak pertsona bakoitzaren sexua argi utzi behar duela, izen berbera sexu bietarako erabiltzea zehazki debekatuz. Azkenean, A. Iñigok adierazi du ezin dela ahaztu eta alde batera utzi Euskaltzaindiak azken 40 urte luzeetan bereziki egin duen bidea, halaber, ezin dela argitalpen batean zerrenda erabat itxi bat eskaini indarrean dagoen legeak izen berriak ezartzeko erraztasun osoa ematen duelako eta, azkenik, gaineratu du Onomastika batzordeak P. Goenagari eta gainerako euskaltzainei iritzi eta iradokizunetatik harago joatea eskertuko liekeela, alegia, euskal tradizioan oinarrituriko ekarpen eta proposamen zehatzak egitea, hurrengo pertsona izendegiaren edizioa prestatzean kontuan eduki ahal izateko.

## 5. 2012. urterako aurreikuspenen garapena

**5.1. Erakundeen emaitzen murriztapena.** Euskaltzainburuak Osoko batzarra-ri joan den astean herri-erakundeekin izandako Jarraipen batzordearen berri eman dio. Euskaltzaindia iaz eskatu zizkieten baldintza, gastu-murrizketa eta egokitzape-

nak oro betetzen zehazki saiatu den arren, azken orduan Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak beren emaitzak beheratu dituzte, eta atxikipen nabarmenak egin (Eusko Jaurlaritzak 190.000 euro eta Arabako Foru Aldundiak 20.000 euro). Euskaltzaindiaren ordezkariak bileran bere desadostasuna agertu zuen, eta bilkura horren akta eskatu ere bai. Baietz, bidaliko zutela erantzun zuten, baina orain arte behintzat ez dute horrela egin. Beraz, litekeena da Euskaltzaindiak aurrezte-neurri are handiagoak hartu behar izatea.

**5.2. 2012. urterako aurrekontuak.** Euskaltzainburuak hitza Joseba Zabaleta kudeatzaileari eskaini dio, aurtengo ekonomiaren berri eman dezan. Euskaltzainburuak aurreraturiko azken berrien arabera, diru-sartze eta gastu-mugimenduen panorama aski xeheki azaldu du, agian egin beharreko murriztapen berriak iragarritz. Ondoren, une honetan langileekiko elkarrizketa-harremanak zertan dauden argitu du. Hor PRECOko alde bie bitartekariak proposamen bat egin diela, azaldu du, alde biek azter dezaten. Testu hori euskaltzainen artean banatu da. P. Salaburuk harridura adierazi du, Arabako Diputazioak eta Eusko Jaurlaritzak, beren diru-laguntzetan, aurten izan duten zerga-bilketaren beherakada baino neurri gogorragoak aplikatu dizkigutelako.

Akademiaren eta bertako langileen arteko gatazka konpontzeko bideari dagokionez, langileekiko gatazka konpontzeko bidean, A. Urrutia euskaltzainburuak bere garaian Zuzendaritzak harturiko erabakia gogora ekarri du. Erabaki hori PRECOtik zetorrena bere horretan onartzearen aldekoa zen, zeinahi zela zetorrena. Osoko bilkurari ere PRECOtik etorri den idatzia onartzen al duen galdetu zaio, eta aho batez baietz erantzun du.

## 6. Eskuartekoak

**6.1. Euskaltzaindiko diruzain kargurako deia.** Joan den hilean orain arteko diruzainak dimisioa aurkeztu zuela kontuan izanda, Barne-erregeletako 13.7 xedapenaren testu idatzia banatu zaie euskaltzainei:

«Zuzendaritzakideen kargu uztea, honako arrazoiengatik gerta daiteke: heriotza, ezintasuna eta dimisioa. Ordezkoen hautaketa, gelditzen den denbora epealdirako izango da. Hutsarte gertatu ostean, ondorengo bilkuran iragarri eta hurrengo hileko Osoko bilkuran hautatuko da».

Beraz, diruzainaren hutsarte iragarririk gelditu da, hautaketa ekaineko batzarrean, bilkura berezian egiteko.

J. Haritschelharrek hitza hartu du Euskaltzaindian J. L. Lizundiak izandako ibilaldia gogoratzeko, eta bai harengandik eta bai J. J. Zearretarengandik berak jasoriko laguntza eskertu du. J. L. Lizundiarentzako omenaldia ere eskatu du, martxoko eta apirileko bileran A. Urrutiak egin bezala. Aurtengo egutegia jada ospakizunez beteegi dagoela eta, omenaldi hori datorren urtean antolatzea hobeto izanen dela erabaki da.

**6.2. UNELIBROS, 24. zenbakia.** Euskaltzainen artean UNELIBROS Unibertsitate mailako aldizkariaren 24. zenbakia banatu da. Hor Euskaltzaindiaren azken argitalpenak jasotzen dira.

**6.3. Leioako leku-izenak liburuaren aurkezpena:** Ekainaren bigarren edo hiru-garren astean Leioako toponimia biltzen duen liburu bat aurkeztekoa da. Obra hau Leioako Udalaren eta Euskaltzaindiaren artean lankidetzan eginga da eta *Izenak* bilduman argitaratuko da. Ekaineko Osoko bilkuran banatuko zaie euskaltzainei.

**6.4. Zergatik Panpox liburuaren irakurraldia.** Bilbo Zaharra euskaltegiak urtero antolatzen duen ekitaldian, Bilboko Arriaga antzokian ekainaren 14an Arantzeta Urretabizkaia euskaltzain urgazlearen *Zergatik Panpox* liburuaren irakurraldi etenik gabea egingo da. Euskaltzaindia ekitaldi horren laguntzailea da, Bilbo Zaharrrak eta Akademiak elkarrekin sinatua duten lankidetzak-hitzarmenari esker. Hor, nahi duten euskaltzain osoek, ohorezkoek zein urgazleek parte har dezakete, aurretik izena emanez gero.

## 6.5. Hitzarmenak

**6.5.1. Euskaltzaindiaren eta Mallabiko Udalaren arteko hitzarmena.** Aurtengo maiatzaren 18an Euskaltzaindiaren eta Mallabiko Udalaren arteko hitzarmena sinatu da, Bizkaiko udalerririk horretako toponimia jaso eta arautzeko. Sinadura-ekitaldian Maria Milagros Mondragon Sagastagoia herriko alkate andrea, X. Kintana idazkaria eta M. Gorrotxategi euskaltzain urgazle eta Onomastika zerbitzburua izan ziren.

**6.5.2. Hitzarmena Euskaltzaindiaren eta Getariako Udalaren artean.** Era berean Getariako toponimia jaso eta normalizatzeko helburuaz, Euskaltzaindiaren eta bertako udalerririk arteko hitzarmena sinatuko da ekainaren bigarren edo hiru-garren astean.

**6.6. Euskaltzaindiaren eta EHU/UPV, Koldo Mitxelena sarietarako epaimahairako kideak.** Zuzendaritzak ondokoak proposatu ditu:

1. Epaimahaiko buruorde, Xabier Kintana, Euskaltzaindiko idazkaria, edo Andres Iñigo Jagon sailburua.
2. Irakaskuntza Teknikoen alorrean Euskaltzaindiko ordezkaria Jose Ramon Etxebarria euskaltzain urgazlea.
3. Giza Zientzien alorrean Miren Azkarate euskaltzain osoa.
4. Gizarte eta Lege Zientzien alorrean Patxi Juaristi Sustapen batzordeko kidea.
5. Osasun alorrean Alberto Loizate.
6. Zientzia esperimentaletan Jacinto Iturbe euskaltzain urgazlea.

Zuzendaritzak egin duen proposamena berretsi du Osoko bilkurak.

**6.7. Basilio Saroberen liburu-dohaintza.** Basilio Sarobek, Sunbillako erreto-reak, Euskaltzaindiari bere liburu eta idazkien dohaintza egin dio. Horien artean euskalduntzearekin zerikusi handia duten liturgia-liburu batzuk dira, arlo horretan aritu baita urteetan Sarobe jauna. Azkue Bibliotekak hartu du dohaintza hori katalogatzeko ardura. Eskerrak ematea erabaki da.

## 7. Azken ordukoak

**7.1. Euskaltzain urgazle berriak.** J. Lakarrak Euskaltzaindiak urgazle berriak noiz izendatuko dituen galdetu du. Euskaltzainburuak erantzun dio Zuzendaritzak hori aurten egiteko asmoa duela eta laster horretarako deialdia iragarriko duela.

**7.2. «Asiako toponimia (I): Japonia, Korea, Txina eta Mongolia».** Ideogramaz edota alfabeto bereziaz idazten diren bertako hizkuntzen letraldaketarako irizpideak idatzirik banatu dira, bai eta herrialde horietako toponimo nagusietarako proposamen zehatzak ere. Oharrak ekainaren 25erako bidali beharko dira, hil horretako batzarrean erabakitzeko.

**7.3. Samitarrak Euskaltzaindian.** Maiatzaren 23an, iluntzean, Urtzi Urruti-koetxea ETBko kazetariak ekarrita, Harald Gaski Tromsoko Unibertsitateko irakaslearen gidaritzapean, Norvegia, Suedia eta Finlandiaren iparraldeko 25 samitar (lapoi) etorri ziren Bilbora Euskaltzaindiaren egoitza bisitatzerako. X. Kintana Euskaltzaindiko idazkariak harrera egin zien, akademia erakutsi, gure hizkuntzaren egungo egoera azaldu eta euskararen arautze prozesuari buruzko argibideak ere eskaini zizkien. Biziki eskertu zuten hizkuntzaren batasunaz emandako informazioa, berek ere buruan antzeko proiektua darabilte eta.

**7.4. Euskaltzaindiaren ekaineko batzarra.** Euskaltzaindiaren hurrengo batzarra ekainaren hogeita bederatzian izanen da Bilbon, goizeko hamarretan.

Eta besterik ez dela, 14:20 direnean Osoko bilkura amaitutzat eman da

Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,  
idazkaria